


Eguneroko bizimodua eta herritarren pentsamoldeak

Mendebaldeko Erromatar Inperioaren gainbeheraren ondoren (476), Euskal Herriko bizimodua nekazaritza-munduan murgildu zen zeharo. Euskal Herriko biztanle gehien-gehienak zuzenean lurretik bizitzen hasi ziren, autarkia ekonomikoko erregimenaren baitan.

XI. mendetik aurrera hiriak sortzen hasi ziren, eta XII. eta XIII. mendeetan sortutako hiribilduetan merkataria eta artisauak finkatu ziren. Halere, nekazaritzari lotutako munduak jaun eta jabe izaten jarraitu zuen, hiribilduetan biztanle guztien % 20 bakarrik bizi baitziren.



1. Erdi Aroko mendeetan oso laburra zen bizi-zikloa, bizi-itzaropena 40 urte ingurukoa baitzen.
2. Garai hartako janzkera poliki-poliki aldatuz joan zen Erdi Aroko lehen mendeetan.
3. Hiribilduak harresi batez inguratuta egoten ziren, babeserako gehien bat.
4. Animaliak orduko kale meharretan zehar ibiltzen ziren lotu gabe, eta era guztietako zaborrak botatzen ziren horietara, bizilagunen osasunaren kalterako. Izan ere, hori guztia oso arriskugarria zen osasunarentzat.
5. Nekazarien elikaduraren oinarria ogia zen, eta, tarteka-marteka, barazkiak, eltzekariak, arrautzak, esnea eta gazta ere jaten zuten. (Burgesen mahaia nekazariena baino hobeto hornituta egoten zen, hiribilduetako denda, merkatu eta azokei esker).

- Nobleen etxean, monasterio handietan eta errege-erreginen jauregietan jaten zen ongien, noski, luxurako aukera baitzuten haiek.
6. Askeak edo mendekoak izan zitezkeen, eta beren buruak elikatzeko edo gizarteko gainerako kideak, hau da, nobleak eta apaizak, elikatzeko lantzen zuten lurra.
 7. Egunsentitik gauera arte lan egiten zuten: 9 bat ordu neguan eta 12 inguru udan.
 8. Erabiltzen zituzten lanabesak oinarri-oinarrizkoak ziren eta gizakiek edo animaliek tiratzen zuten golde erromatarrean oinarritzen ziren. Ezin zituzten oso ildo sakonak egin eta, beraz, uztak urri samarrak izaten ziren. XI. mendean, ordea, aldatu egin zen egoera, golde belarriduna erabiltzen hastearekin batera onera egin baitzuten uztek. Ondorioz, batzuetan soberakinak izaten zituzten.
 9. Ura hiribilduetako iturri publikoetatik hartzen zuten, baina urria zen. Iturriok hiribilduetako plazetan egoten ziren.
 10. Hiribilduetako etxebizitzek 40-50 m²-ko oinplano angeluzuzena zuten. Zati gehienak egurrez eginda zeuden eta bi isurialdeko lastozko teilatua zuten.
Barrualdea bi gelatan banatuta zuten: sukaldea, kalera begira eta logela, gordeago.
Etxearen atzealdean baratzea, ukuilua edo putzu beltza egoten ziren.